

# Euskal delikatessen Mitxelenaren omenez

Laboa, Atxaga eta Ordorika Gasteizen

**A**urreko larunbatean, Ailuntzeko zortziak aldera, 'le tout Gasteiz' (ez nahastu 'le tout Vitoria-rekin') zen bildurik Villa Suso Jauregiko atari aldean, Matxete enparantzan. Mikel Laboa, Bernardo Atxaga eta Ruper Ordorikaren musika-errezitaldi saio erdi pribatua zegoen iragarrita.

GERARDO MARKULETA / GASTEIZ

Saioa Euskal Herriko Unibertsitateak antolatu zuen Mitxelenaren inguruko hizkuntzalaritza jardunaldiak zirela eta, hango kongresukideentzat; horiez gain, beste ehunen bat pertsona ere bildu zen Villa Susoko kapera zaharrera, gonbidapen elebitakoak (euskara/ingeleza) atean txintxo-txintxo erakutsi eta gero. Gomiten lortu beharrak eragin ohi duen uzurtasuna medio zela ere, gaur eguneko euskal arteko hiru izen puntakook erakarrik, aretoa bete-betea ageri zen —kongresukideak aurrean, besteok atzean— saioa hasi zenean.


Emankizunaren helburua jardunaldietako gonbidatuei gaur eguneko euskara adierazpen artistikoen erakusgarri bat ematea bide zen, oso kontutan harturik ikus-entzuleen izaera: batetik guztiak filologo eta hizkuntzalari izanik, hizkuntza eta hizkuntzen inguruan aritzea, eta, bestetik, euskaraz gain lingua frankoak erabiltzea; Atxagak agur hitzetan esan zuenez, «gaurko bilera hau ez da arrunt-arrunta ere, ze kanpoko jende asko dugu tartean». Euskara eta ingeleza tartekatuz aritu ziren, gaztelera ere bai une jakin batean. Ez-ohiko gauza asko ikusteko eta entzuteko aukera izan genuen han bilduok: Atxaga testu bat ingelesez irakurtzen, Ruper Ordorika bere abestien elebiko aurkezpen luze samarra egiten, Mikel Laboa Ruperekin

batera Atxagaren aspaldiko 'Bertso berriak' kantatzen. Erresposabilitatearen handiak nerbio gora-beheratxoak eragin zituen, baita zaildueneetan ere. Beharbada, ez zen gutxiagorako: jardunaldietako partehartzaileen helbideen artean —ia guztiak posta elektronikorako zenbakia zeramatela— honako herrialdeen izenak irakur zitezkeen: Belgium, Netherlands, Germany, United Kingdom, Canada, Australia, Catalunya, Galizia, Singapore, Russia, Sweden, France, Hong-Kong, USA.

Atxagaren lehen hitzak Mitxelenaren oroimenez izan ziren: «gure belaunaldiko askorentzako, gizon eredugarria izan zen, ez bakarrik hizkuntzaren kontue-

Une berezia gertatu zen Ordorikak eta Laboak erdi bana Atxagaren 'Bertso berriak' kantatu zituztenean.

tan, eredugarri bizitzaren beste arlo askotan ere; eta azkenean, nik uste, denok asko maite genuen, nahiz eta beharbada, hasiera batean, maitasun hori hain erraza izan ez». Ondoko leihoan agertzen den testua irakurri zuen Atxagak, euskaraz eta ingelesez. Ordorikak hartu zuen lekukoa eta, Josu Zabalararen eskusoinuaren laguntzaz, saio *folky* samarra egin zuen: 'Aspaldian', 'Galtzetan gordetzeko koplak', 'Enperadorearen zaldirik onenak' (okasioak eskatzen zuen bezala, Herodotoaren aipamena eta guzti). Atxagak beriz hitza hartu eta 'Trikuarena' irakurri zuen; ingelesezko bertsoiak, oraingoan, ordea, irakurle 'natiboa' izan zuen, eta ingelesik batere ez zekitenek ere, aurrekoen erreazioei adi, ulertzen zutela ematen



Laboa, Atxaga eta Ordorikaren emanaldia euskal modernitatearen erakusgarri gertatu zen.

zuen. Laboa igo zen eskenatokira gero, Salvador anaiekin; aurkezpen hitzik gabe, instrumental bat, Atxagaren 'Buztinekzo bihotz' eta 'Komunikazio / inkomunikazio'. Atxagak gaztelera irakurri zuen («gurea ere baden beste koiné horretan») '37 galdera' izeneko poema, eta ondoren Laboak harekin egindako kantua. Txalapartak ere izan zuen bere lekua. Mikelen saioa 'lekeitioegi' gertatuko zitzaion bateonbati, baina garbi dago arrotzek eraman inpresioa ez zela hain zuzen bukholiko-kanteprea izango. Une berezia gertatu zen (ikustekoa zen bertsoen egilearen jarrera) Ordorikak eta Laboak erdi bana Atxagaren 'Bertso berriak' kantatu zituztenean. Eta are bereziago hirurak, tartekaturik, Bilborako prestatu 'Minutu bateko manifestua', euskal hizkuntzaren izena hamaika hizkuntzetan emana. Ruperrek kantatu zuen 'bis' bakarra, bere lehen kantuetako bat, eta, segurasko, Atxagaren lehen poetetako bat, 'Hi hintzena'.

Urduritasunak eta detaile tekniko tiki batzuk gora behera, izpiritu-elkartasun moduko bat izan zen nagusi emankizun osoan. Halako saio osagarrietan eskaini ohi den folkloreaken lekuan, euskal modernitatearen erakusgarri gertatu zen emanaldia: eleanitza, kantu, poema, *hapening*, txalaparta... Euskal delikatessen artistikoa entzule bereziki delikatuentzat.

## Euskara dela eta

BERNARDO ATXAGA

Bernardo Atxagak euskaraz eta ingelesez irakurri zuen honako testu hau euskal hizkuntzaren eta inguruko azalpen gisa, Laboa eta Ordorikarekin batera egin emanaldi berezian.

Hizkuntza bitxi batean idazten dugu, (edo kantatzen dugu, edo hitz egiten dugu). Bere aditzak, bere erlatibozko perpausen egiturak, antzinako gauzak: ibaia, landareak edo txoriak izendatzeko erabiltzen dituen hitzek ez dute anai-arrebarik munduan. 'House' edo 'casa', esate baterako *etxe* da; 'bee' edo 'abeja', *erle*; 'death' edo 'muerte', *heriotz*. Eta negu hutsetako izar argi-emaleari, *eguzki* edo *eki* esaten diogu; eta udaberri goxo eta euritsuetan azaltzen denari, bada, *eguzki* edo *eki* baita ere, ze hizkuntza bitxia izan arren, ez baita hain bitxia ere. Harrizko arbola jaioa, aurrera atera zen hizkuntza, setati, atzeraka eginez, bere burua triku batek bezala gordez, han non berari esker munduak Euskal Herria izena daraman. Hala eta guztiz ere, bere bakartasuna ez zen erabatekoa izan: 'cat' edo 'gato' *katu* esaten da; 'pipe' edo 'pipa', *pipa*; 'logic' edo 'lógica', *logika*. Beraz, detektibeen printzeak esan izango zukeenez, gure trikuak, kobazuloetan izanda ere, harremanik izan zituen Erromarekin batez ere, edo horren ondorengoekin. Eremu soil-tiki baten hizkuntza honek, mapan ikusi ere egiten ez den herri honen hizkuntza honek ez zuen ibilerarik egin korteko lorategietan, eta gobernuen batimenduetako lur marmorezkoak ere ez zituen inprimutu. Lau mendetan ehun liburu eskas sortu zituen: aurrenekoa, 1565ean; garrantzitsua 1643an. Calvinoren araberako testamendu berria 1571.ean edo; katolikoen biblia osoa 1860. aldera. Loaldia luzea izan zen, liburutegia laburra oso. Baina hogeigarren mendean trikua esnatu egin zen.

## IRAGARKI MERKEAK (943) 300222


31 x 33mm

31 x 10 mm

EGUN BAT 580 pta/18 l  
ASTEBETE 2.890 pta/91 l  
BI ASTE 4.830 pta/154 l  
HILABETE 7.510 pta/238 l

Lagun bat behar dugu  
pisu bat osatzeko  
Interesatuok deitu:  
943 / 210945  
(ARRATSALDEZ)

IRAGARKI  
MERKEAK



SEBASTOPOLEKO  
TITIRITEROAK

TF: 908 77 23 47

LEGAZPI 6  
Euskaltegia

euskaraz  
trebatzen

Informazioa eta matrikula  
Lasala enparantza, 3 behea  
Tfnoa. 42 43 66

31x33  
MODULO A

EGUN BAT 2.310 pta/74 l  
ASTEBETE 11.235 pta/357 l  
BI ASTE 19.850 pta/630 l  
HILABETE 27.565 pta/875 l

31 x 15 mm

EGUN BAT 1.155 pta/36 l  
ASTEBETE 5.670 pta/179 l  
BI ASTE 9.870 pta/315 l  
HILABETE 13.755 pta/438 l

31 x 33ko  
BI MODULO

EGUN BAT 4.620 pta/147 l  
ASTEBETE 22.470 pta/714 l  
BI ASTE 39.690 pta/1.260 l  
HILABETE 55.125 pta/1.750 l